

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Googlek Lurra berotzen du

SUNDAY TIMES egunkari britainiarrak dioenez, Googlen egiten den bilaketa bakoitzak zazpi gramo CO₂ sortzen omen du. Joan den urtean zerbitzua estatutzeaz arduratzen den Strato enpresak ere antzeko zenbakia aitatu zuen, baina egunkari britainiarrak kalkulua nondik nora egin duen argitu du.

2006-2007ko epean eguneko 280 milioi bilaketa egiten ziren Googlen. Bilaketa horietan 450.000 zerbitzarik parte hartu zuten eta horien kontsumoa 400 kWh denez, bilaketako hamaika watt kontsumitzen direla estimatzen da. Watt horiek zer CO₂ kantitate dagozkion jakiteko, kontuan hartu behar da ez dela gauza bera iturria ikatza edo energia nuklearra izatea, adibidez. Ikatzetik sortutako kWh bakoitza 500 gramo CO₂-ren baliokidea da, energia nuklearretik sortutakoari 80 gramo baino ez dagokio. Beraz, Googlen egindako bilaketa bakoitzari zazpi gramo CO₂ egozteari hipotesi txarra da, hots, energia iturritzat ikatza hartzea.

Aldiz, Googlek dio benetako energia kontsumoa bilaketako 0,2 gramo CO₂-ren baliokidea baino ez dela, eta bera dela bere zerbitzarien benetako kontsumoa zein den ongien dakiena. Aparatuen elektrizitate-kontsumoa neurtzen duen softwarea garatze bidean duela (www.google.org/powermeter/index.html) iragaritzeaz gain, energia berriztagarriekin duen konpromisoa indartuko duela azpimarratu du.

Gai honek eztabaida bati hasiera eman dio zientzian: teknologia berrietatik eratorritako tresnen eraginez zenbat berotuko da Lurra?

Fusio nuklearra fisioaren bultzatzaile?

ENERGIA NUKLEAR tradizionala fisiozkoa da eta hark sortutako hondakin erradioaktiboak gordetzeak zer arazo sortzen dituen ezaguna da. Hondakin nuklearren gordeleku asko bete-beteta daude eta gehiago topatzea oso zaila da.

Itxaropena fusio nuklearra da: ez du ez CO₂-rik ez hondakinik sortzen. Orain, Texas-eko Unibertsitateko ikerlari talde batek esan du fisioz sortutako elementuei fusioaren printzipioak aplikatuz elementu erradioaktiboak desagerrarazi daitezkeela, eta beraiek lortu egin dutela gainera. Nola? Ez dute esan, baina egia izanez gero, energia nuklearrari izugarritzko bultzada emango lioke.



Ez izan beldurrik txakurrak miazkatzen bazaitu

Azken aldian areagotu egin da animaliegandik gizakiengana igarotzen den gaixotasun kopurua, eta maskotak dituzten pertsonen artean gaixotasunak kutsatzeko gero eta beldur handiagoa dago. Baina ikerlariek diote okerragoa dela eskuak ez garbitzea txakur batek aurpegian miazkatzea baino.

<http://ttiki.com/2597>

Txinpantzeak, arrantzale bikainak

Zientzialariak orain dela urte batzuk konturatu ziren txinpantzeek termitak harrapatzeak zuhaitz adarrak lantzen zituztela. Orain ohartu dira tximuok 4.000 urte baino gehiago daramatela arrantza egiten, era horretan prestatutako tresnekin.

<http://ttiki.com/2598>

Atzekoa ikusten duen arraina

600 metrotik beherako sakoneran bizi den *Macropinna microstoma* espezieko arrainek oso begi bereziak dituzte: aurrekoa, goikoa eta behekoa ez ezik, atzekoa ere ikusteko ahalmena dute, Kalifornian egindako ikerketa batek agerian utzi duenez. Izan ere, burua gardena du espezie bitxi honek; zientzialariak orain ohartu dira noranzko guztietara begiratu ahal izatea dela horren helburua.

<http://ttiki.com/2600>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16